

LORE JOKOAK

Lore Jokoak izena bertze modu batean erranik, **literatur jokoak** dira. XIV.mendean jada antolatzen hasiak ziren gisa honetako jokoak, nahiz gurerat beranduxeago ailegatu: 1853.urtean hain zuzen ere. Urte horretan antolamendu zehatza eta hurrengo urteetarako eredugarria izanen ziren oinarriak finkatu ziren..

Lore Jokoen lehenbiziko aroa 1851-1878: Urruña, Sara eta Donapaleu

Anton Abbadia sortzez dublindarra, baina aita euskalduna zuena dugu joko hauen antolatzaile eta bultzatzaile. 1851.urtean Urruñan hasi zen Abbadia bere sakeletik ordainduta sariak banatzen, nahiz egiazki literatur jokoak bi urte beranduago artio ez finkatu.

Joko hauek 1851.urtetik 1863.urtera artio Urruñan ospatu ziren, 1864.etik 1878.erat Saran, eta tartean, 1877.urtean Donapaleun.

Bigarren aroa: Ipar eta Hego Euskal Herrian zehar 1879-1897

Hego Euskal Herriko lehenbiziko Lore Jokoak **Elizondon** ospatu ziren **1879**.urtean. Hegoalderat pasatzearen arrazoia, hiru urte lehenago foruak kendu eta karlistaldia galdu izanak eragin zuen. **1876.urtean Foruen deuseztapenaren** ondorioz euskal kulturak bizi zuen egoera latzari aitzin egiteko, Anton Abbadiak Lore Jokoak Hego Euskal Herrirat ekartzeko erabakia hartu baitzuen.

Garai hartan Hego Euskal Herriak bizi zuen egoera politikoa zein zen argi eta garbi erakusten du Elizondon 1879.urtean ospatu ziren Lore Jokoetan gertaturikoak. Egitarauak **bi sari** iragartzen zituen: bata Abbadiak jartzen zuen, -gai librean aritutako kantari makila eta 80 pezetako saria-, eta bertzea honekin batera ospakizuna antolatu zuen Nafarroako Euskal Elkargoak, Arturo Campionek emanen zuen – *euskaldunen gaucic maiteena* gaiaren inguruan hobekien idatziko zuenari-. Abbadiak emandako saria **Ramon Artola** donostiarrarendako izan zen *Altabizkarko kantua* moldatzeagatik, eta Nafarroako Elkargoarena, **Felipe Arrese Beitiarendako** “*ama euskeriari azken agurra*” poemarengatik.

Elizondoko Lore Jokoen bezperan, Duvoisin kapitainak Bonaparteri aditzera eman zion, bere iritziz, ez zela egokia Elizondoko Lore Jokoetan lehenbiziko saria “*ama euskeriari azken agurra*” olerkiari ematea, hegoaldeko egoera politikoa kontuan hartuta. Honela dio Duvoisinek igorritako gutunak:

Comme le Pays Basque-espagnol est sous le regime de l'état de siège, nous n'avons pas jugé à propos de publier que M. de Arrese est premier lauréat au concours d'Elizondo, (de peur de faire interdire ces concours à l'avenir), mais on lui fera parvenir le Prix

Euskal Herri-española setio egoeran denez ez dugu egoki ikusi M de Arrese Elizondoko lehiaketan irabazlea izan dela publikatzea (etorkizunean txapelketa hauek debekatuak izateko beldurrez) baina saria helaraziko zaio.

1879.urtetik aitzinerat hiri eta herri desberdinetan hasiko dira Lore Jokoak antolatzen. Erakusketa honetan ondoren ageri diren herrietan antolatu ziren Lore Jokoen inguruko afixak izanen dituzue erakusgai, baita lehenbiziko aroa deitu dugun horretako afixak ere.

1879an Elizondon

1880an Beran eta Maulen.

1881ean, Irunen

1882an Saran berriz

1883an Markinan

1886an Urnietan

1887an Azkainen

1888an Kanbon

1889an Donezteben

1890an Maulen

1891ean Iurretan

1892an Donibane Lohitzunen

1893an Azpeitian

1894an Donibane Garazin

1895ean Beran

1896an Maulen

EGITARAUA

APIRILAREN 8tik 21erat

Egunero 18:00tik 20:00etara Lore jokoan inguruko erakusketa Iruritako Jauregian. (Anton Abbadia Juaregitik ekarritako afixak eta 1879.urtean sarituak izan ziren poemak ikusi ahal izanen dira).

APIRILAREN 12an

19:00etan Iruritako Jauregian Rosa Miren Pagolaren htzaldia;

Elizondoko Lore Jokoetan gizon haundi bat: Bruno Etxenike

APIRILAREN 21an

11:00etan erreboteko plazan Laxoa partida: Irurita A - Arraioz B
(Laxoari buruzko Erakusketa gizarte bilgunean egonen da)

11:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00tik 19:00etara Jauregia irekita egonen da.

12:30etan herriko plazan Euskal dantzak Iruritako dantzarekin

17:00etan Poema errezitaldia musikarekin alaituta Jauregiako lorategian, 1879ko olerki sarituekin eta 2013ko literatura lehiaketako irabazleen lanekin.

18:00etan Bertso saioa: Andoni Egaña eta Uxue Alberdi (gai jartzailea: Fernando Anbustegi)

(Eguraldi txarrarekin goizeko ekitaldiak herriko frontoian egingo dira eta arratsaldekoak gizarte bilgunean)